

Ozeanoaren konkista

Problematika : Duela aspaldi, itsasbazterreko herrixka bateko jendeek itsasoa munstro sorginduz beteriko eremu madarikatua zela uste zuten, ahaideen ahaideek hala kontatu baitzuten beti. Ur handi haietara hurbiltzea debekatua zen, herrira begi gaiztoaren erakartzeko arriskua baitzen. Herriko haur batek halere, izigarri gustuko zuen ur eremu handi hura, eta haren ustez munstro handi haiek animaliak baizik ez ziren. Horren frogatzea bururatu zitzaion beraz.

Narrazioa

Egitura “zirkularra”, bereziki irudiek azpimarratua, aitzin solas gisakoaren eta azken orrialdearen artean

1: Aitzin solasa -> bainuontziaren aipamena eta ilustrazioa

2: Hastapeneko egoera: Herrixkako jendeei debekatua zaie itsasora joatea, sorgindua dela uste baitute. Belagilea da usaia horien zaindaria.

3: Haurrak debekua gainditu nahi du eta munstroak animaliak baizik ez direla frogatu.

4: Proiektua eta horren gauzatzeko ahalbideak

5: Entsegua eta huts egitea

6: Maskotaren salbatzeko, elkartasuna eta jende gehiagok debekuaren gainditzea

7: Munstrorik ez da, animalia soilak dira.

8: Amets bainuontzian iratzartzen da: dena ametsa izan da. (Aitzin solasarekiko lotura)

Pertsonaiak:

Amets: Herrixkako haurra da (ez dugu haren generoaren berri). Kuriosa da eta ez du uste itsasoa madarikatua denik. Horren frogatzeko herritarren eta bereziki belagilearen ikuspegi hertsuari buru egin beharko dio.

Lagun: Ametsen txakurra da, herritar guzietan biziki maite dute, xahar eta haur orekin izigarri maitagarria baita.

Belagilea: Herriko jakintsua da, denek harengan sinesten dute. Haren ustez, itsasoan den gauza oro sorgindua eta lanjerosa da, hala erran baitute betidanik asaben asabek. Itsasora hurbiltzeko debekuaren zaindaria da.

Herritarrak: Belagileak dionari jarraitzen diote. Bakoitzak bere ideia badu itsasoan diren munstroez (Ametsen familiakoek barne). Baina azkenean Amets laguntzen dute eta Belagilearen debekua urratzen.

“Egiazko” Amets: Bainuontzian dagoen haurra, ipuinaren bukaeran iratzartzen dena.

Denbora eta espazioa:

Denbora: Aste/hilabete zenbait narrazio denboran, “errealitatean” Ametsen ametsaren denboran

Espazioa: Herrixka/urraela/itsasoa (“errealitatean” bainuontzia)

Grafismoa	<p>Ilustrazioak:</p> <p>Kolajea eta marrazkia nahasirik dira.</p> <p>Gehienak hiru koloretan dira, zuri, urdin eta laranja kolore.</p> <p>Batean herritarren irudipenak ageri dira.</p> <p>Beste zenbait aski figuratiboak dira; xakurra haatik ez da “errealista”.</p>
Mezua	<p>Mezu nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Usteak eta sinesmenak gaindituz, eta “metodologia” egokia plantan ezarriz, jakintza berriak kausitzen ahal dira. - Debeku guziek ez dute kanorerik / desobeditzen jakin behar da noiztenka. - Gehiengoak sinesten duena ez da beti egia. - Elkarlanaren onurak